# DEIALDIAREN BERARIAZKO 19.ZK. ERANSKINA

# IRUNGO MERKATARITZARENTZAKO LAGUNTZAK IRUNGO MERKATARITZAKO PLAN ESTRATEGIKOAREKIN BAT EGITEN DUTEN PROIEKTUETARAKO

**1. AURREKONTU KREDITUA**

100.000 euro.

1 0810.481.02.430.10 aurrekontu-aplikazioko A-343/2023, A-344/2023 eta A-345/2023 kontabilitate agirien kargura finantzatzen da, eta honako lerro hauetan banakatzen dira:

**1. lerroa, Merkatariak:** proiektuak Irungo Merkataritzako Plan Estrategikoaren Ekintza Planarekin bat etorriz garatzen dituzten merkatariei (pertsona fisikoak nahiz juridikoak) eta nortasun juridiko propiorik ez duten merkatarien elkarteei irekia……... 25.000 euro.

Laguntza-lerro honetan, gehienez ere 10.000 eurokoa izango da laguntza.

**2. lerroa, Merkatarien Elkarteak:** proiektuak Irungo Merkataritza Plan Estrategikoaren ekintza Planarekin bat etorriz garatzen dituzten nortasun juridiko propioko

# ANEXO ESPECÍFICO DE CONVOCATORIA Nº 19

# AYUDAS AL COMERCIO DE IRUN PARA PROYECTOS DE INTERÉS ESTRATÉGICO EN EL MARCO DEL PLAN ESTRATÉGICO DE COMERCIO

**1. CRÉDITO PRESUPUESTARIO**

100.000 euros.

Se financia con cargo a los documentos contables A-343/2023, A-344/2023 eta A-345/2023 que están imputados a la aplicación presupuestaria 1 0810.481.02.430.10 y se desglosa en las siguientes líneas:

**Línea 1, Comerciantes:** abierta a comerciantes (personas físicas o jurídicas) y a agrupaciones de comerciantes sin personalidad jurídica propia que desarrollen proyectos en línea con el Plan de Acción del Plan Estratégico de Comercio de Irun......................... 25.000 euros

La ayuda máxima por proyecto en esta línea será de 10.000 euros.

**Línea 2, Asociaciones de Comerciantes:** dirigida a asociaciones de comerciantes con personalidad jurídica propia que desarrollen proyectos en línea con el Plan de Acción del

merkatarien elkarteei zuzendua…………………..……….…. 60.000 euro

**3. ildoa, Ostalariak eta Ostalarien Elkarteak:** Irungo Merkataritzako Plan Estrategikoaren Ekintza Planarekin bat datozen proiektuak garatzen dituzten ostalaritza-establezimenduei, nortasun juridikorik gabeko ostalarien elkarteei eta nortasun juridiko propioa duten ostalarien elkarteei zuzendua…………….. 15.000 euro

Laguntza-lerro honetan, gehienez ere 10.000 eurokoa izango da laguntza.

Plan Estratégico de Comercio de Irun…………………………………..60.000 euros

**Línea 3, Hosteleros y Asociaciones de Hosteleros:** dirigida a establecimientos hosteleros, agrupaciones de hosteleros sin personalidad jurídica y asociaciones de hosteleros con personalidad jurídica propia que desarrollen proyectos en línea con el Plan de Acción del Plan Estratégico de Comercio de Irun……………………………. 15.000 euros

La ayuda máxima por proyecto en esta línea será de 10.000 euros.

## 2. XEDEA

Irungo txikizkako merkataritzaren sektorea babestea, estrategia kolektiboak sustatuz, baita hiri-ekonomiako jarduerekin integratzeko eta Irungo Merkataritzako Plan Estrategikoaren ekintza-planean garatutako ildoekin koherenteak diren beste modu batzuk ere, hala nola:

- Hurbileko merkataritzari laguntzea, saltoki txikiak sustatzeko, hedatzeko eta dinamizatzeko ekintzen bidez, hala nola: merkataritza sustatzea eta dinamizatzea, bezeroak fidelizatzeko sistemak ezartzea eta garatzea, merkataritza-guneak elkarrekin sustatzeko ekintzak, merkataritza-inguruneen merkataritza-

## 2. OBJETO

El objeto de esta línea de subvención es apoyar al sector de comercio minorista irunés, fomentando estrategias colectivas, así como otras formas de integración con las actividades de economía urbana, que sean coherentes con las líneas desarrolladas en el Plan de acción del Plan Estratégico de Comercio de Irun, como por ejemplo:

- Apoyo al comercio de proximidad, mediante acción de promoción, difusión y dinamización del pequeño comercio, tales como animación y dinamización comercial, implantación y desarrollo de sistemas de fidelización de clientes, acciones de promoción conjunta de enclaves comerciales, acciones encaminadas a la mejora del

erakargarritasuna hobetzeko ekintzak, kontsumo jasangarria sustatzea.

- Saltoki txikietan digitalizazio-tresnak ezartzea, adibidez heldutasun digitalaren diagnostikoak eta digitalizazioan aurrera egiteko ekintzak, merkataritzarako aplikazio digitalen ezarpena, aplikazio mugikorren garapena eta horien bitartez merkataritza txikiaren hedapena.

Diruz lagungarriak diren jarduerak 2023ko ekitaldian zehar garatuko dira.

**3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA**

Norgehiagoka.

**4. ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK**

Honako hauek lor dezakete onuradun izaera:

a) Jarraian adierazten diren multzo, talde edo EJZren epigrafeetako batean ari den merkataritza jarduera baten titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak, dirulaguntzaren xedeko proiektuko "eragile bultzatzailea" gisa jardungo dutenak:

- 64. multzoa, Establezimendu egonkorretan jan-edatekoak eta tabakoa txikizka sal tzen dituzten komer

atractivo comercial de los entornos comerciales, fomento del consumo sostenible.

- Implementación de herramientas de digitalización en el pequeño comercio, como diagnósticos de madurez digital y acciones para avanzar en la digitalización, implantación de aplicaciones digitales para el comercio, desarrollo de apps móviles y difusión del pequeño comercio a través de las mismas.

Las actividades subvencionables deberán desarrollarse a lo largo del ejercicio 2023.

**3. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCION**

Concurrencia competitiva.

**4. REQUISITOS PARA OBTENER LA CONDICIÓN DE BENEFICIARIO**

Podrán adquirir la condición de beneficiario:

a) Personas físicas o jurídicas, titulares de una actividad comercial encuadrada en alguna de las siguientes agrupaciones, Grupos o epígrafes del IAE, que actúen como "agente tractor" del proyecto para el que se solicite la subvención:

- Agrupación 64, Comercio al por menor de productos alimenticios, bebidas y tabaco realizado en establecimientos

tzioak.

- 65. multzoa, Establezimendu egonkorretan jan-edatekoak eta tabakoa ez baizik eta industria produktuak txikizka saltzen dituzten komertzioak.
- 97. multzoa, Zerbitzu pertsonalak.
- 676. taldea, Zerbitzuak txokolategietan, izozki dendetan eta hortxata dendetan.

1.lerroan "Establezimendu atxikia" bezala parte hartu ahal izango dute, horregatik onuradun-izaera lortzeko aukerarik gabe, aurreko multzo, talde edo epigrafeetako batean sartuta dauden establezimenduek ez ezik, honako hauetako batean sartuta daudenek ere:

- 671. talde, Zerbitzuak jatetxeetan.
- 672. taldea, Zerbitzuak kafetegietan.
- 673. taldea, Zerbitzuak kafetegi eta tabernetan, jaten ematen dutenetan eta ez dutenetan.

Honako jarduera hauek espresuki at geratzen dira:

- 647.4. epigrafea, edozein jan-edatekoren txikizkako merkataritza auto-zerbitzu erregimenean edo supermerkatuetako bitariko erregimenean; halakoak dira saltokiaren azalera 400 metro koadrokoa edo handiagoa denean.

permanentes.

- Agrupación 65, Comercio al por menor de productos industriales no alimenticios realizado en establecimientos permanentes.
- Agrupación 97, Servicios personales.
- Grupo 676, Servicios en chocolaterías, heladerías y horchaterías.

En la "Linea 1" podrán participar como "establecimiento adherido", sin que por ello puedan adquirir la condición de beneficiario, además de los establecimientos encuadrados en alguna de las agrupaciones, grupos o epígrafes anteriores, los que se encuadren en alguno de los siguientes:

- Grupo 671, Servicios en restaurantes.
- Grupo 672, Servicios en cafeterías.
- Grupo 673, Servicios en cafés y bares, con y sin comida.

Quedan expresamente excluidas las actividades siguientes:

- Epígrafe 647.4, Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y bebidas en régimen de autoservicio o mixto en supermercados, denominados así cuando la superficie de su sala de ventas sea igual o superior a 400 metros cuadrados.

- 655. taldea, Erregai, karburante eta labaingarrien txikizkako merkataritza.

b) aurreko a. atalean deskribatutako pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarteek, Irungo Merkataritzako Plan Estrategikoaren Ekintza Planaren ildoko proiektuetan agente eragile gisa ari badira (1. lerroa).

c) aurreko a. atalean deskribatutako pertsona fisiko nahiz juridikoak biltzen dituzten elkarteek, Irungo Merkataritzako Plan Estrategikoaren Ekintza Planaren ildoko proiektuetan agente eragile gisa ari badira (2. lerroa).

Entitate horiek indarrean dagoen legediaren arabera eratuak egongo dira eta dagokion Erregistroan (Elkarteen Erregistro Orokorra edo Fundazioen Erregistroa).

- Grupo 655, Comercio al por menor de combustibles, carburantes y lubricantes.

b) las agrupaciones de personas físicas o jurídicas descritas en el apartado a. anterior que actúen como agente tractor en los proyectos, en línea con el Plan de Acción del Plan Estratégico de Comercio de Irun (línea 1).

c) las asociaciones que agrupen a las personas físicas o jurídicas descritas en el apartado a. anterior, que actúen como agente tractor en los proyectos, en línea con el Plan de Acción del Plan Estratégico de Comercio de Irun (línea 2).

Las entidades deberán estar constituidas con arreglo a la legislación vigente e inscritas en el registro correspondiente (Registro General de Asociaciones o Registro de Fundaciones)

## 5. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Honako betebehar hauek ditu onuradunak:

- Burura eramango du diruz lagundutako proiektua.
- Oinarrietan eta deialdian finkatutako baldintzak beteko ditu eskaeraren eta justifikazioren arteko epean zehar.
- Diruz lagundutako proiektuaren berri ematen duen bakoitzean, euskarria edozein izanda, Udalak finantza turiko proiektua dela jakinaraziko du onuradunak.

## 5. OBLIGACIONES DEL BENEFICIARIO.

Son obligaciones del beneficiario:

- Llevar a cabo el proyecto subvencionado.
- Cumplir durante el periodo comprendido entre la solicitud y la justificación los requisitos establecidos en las bases y en la convocatoria.
- Hacer constar en las comunicaciones que del proyecto subvencionado haga el beneficiario, sea cual sea el medio o soporte utilizado, la circunstancia de tratarse de un proyecto financiado por el

- Erabilitako komunikazio elementu guztiek, hitzezkoek nahiz idatzizkoek, gutxienez elebidunak izan beharko dute, eta euskarari lehentasuna emango zaio (ordena, neurria, kokapena, eta abar), "Irungo Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilera Normaliza tzeko Arauei" buruz indarrean dagoen Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera.
- Dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak baztertzea, eta irudietan berdintasun baloreak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero identitate zein rolen pluraltasuna sustatzea.

Ayuntamiento.

- Todos los elementos de comunicación utilizados, escritos y orales, deberán ser, al menos, bilingües, dando un trato preferente al euskara (orden, tamaño, situación, etc.) de acuerdo a lo establecido en la Ordenanza Municipal vigente sobre "Normas para la Normalización del Uso del Euskara en el Ayuntamiento y Municipio de Irun".
- Que en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales se emplee un uso no sexista del lenguaje, se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se fomente una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

**6. ESPEDIENTEA BIDERATZEA, EBAZTEA ETA JAKINARAZTEA**

Ekonomia sustapenaren alorrean eskumena duen udal arloak izapidetuko du, baina aurretik, interesdunek eskaera egin behar dute.

Alkatetzaren ebazpenaren, edo ordezkaritza jasotzen duen Organoaren bidez erabakiko da deialdia, eta gehienez ere 3 hilabeteko epean jakinaraziko da, eskaerak aurkezteko epeak ixten direnetik aurrera zenbatuta.

**6. INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE, RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN**

La instrucción se llevará a cabo desde el área municipal competente en materia de promoción económica, previa solicitud del o de los interesados.

La convocatoria se resolverá por Resolución de Alcaldía, u Órgano en quien delegue, y será notificada en un plazo máximo de 3 meses desde el cierre de los respectivos plazos de presentación de solicitudes.

Ebazpenik ematen ez bada, ezetsitzat joko da.

La ausencia de resolución se entenderá desestimatoria.

**7. BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA**

Honako hauek izango dira balorazio-batzordea osatuko dutenak:

- Hiri Bultzada, Ekonomia eta Ogasuna Arloko zuzendaria
- Hiri Bultzada, Ekonomia eta Ogasuna Arloko teknikaria
- Bidasoa bizirikeko ordezkari bat
- Ficobako ordezkari bat
- Gipuzkoako Merkataritza Federazioko ordezkari bat
- Gipuzkoako Merkataritza Ganberako ordezkari bat.

**7. COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN**

La Comisión de valoración estará constituida por:

- Director/a del Área de Impulso de Ciudad, Economía y Hacienda
- Técnico/a del Área de Impulso de Ciudad, Economía y Hacienda.
- Representante de Bidasoa activa
- Representante de Ficoba
- Representante de la Federación Mercantil de Gipuzkoa
- Representante de la Cámara de Comercio de Gipuzkoa.

**8. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA**

Honako hau izango da eskaerak aurkezteko epea:

1 lerroari dagokionez, deialdiaren urteko urriaren 31era bitartekoa.

2 lerroaren dagokionez, deialdiaren urteko irailaren 29ra bitartekoa.

3 lerroaren dagokionez, deialdiaren urteko urriaren 31era bitartekoa.

**8. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

El plazo de presentación de solicitudes será el siguiente:

Respecto de la línea 1, hasta el 31 de octubre del año de la convocatoria.

Respecto de la línea 2: hasta el 29 de septiembre del año de la convocatoria.

Respecto de la línea 3: hasta el 31 de octubre del año de la convocatoria.

## 9. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA

Deialdiaren baldintza orokorretan adierazitako dokumentazioaz gain, eskaera aurkezten den modua dela ere, erantsi beharko zaio:

- Proiektua deskribatzen duen memoria, burura eramateko egutegia, kostua eta finantzazioan aplikatutako baliabideak adieraziz.

  Eskaera berezko izaera juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarte batek aurkezten badu, memoriak, gainera, elkartekideen zerrenda eta pertsona horietako bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak jasoko ditu. Horretaz gain onuradun den aldetik elkarteari dagozkion betebeharrak betearazteko nahikoa ahalak dituen ordezkari baten izendapena jasoko du.

- Pertsona eskatzailearen edo eskatzaileen NAN edo IFKren kopia.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, pertsona eskatzaileari dei egingo zaio 10 laneguneko epean dokumentazioa osatu dezan edo akatsak zuzendu ditzan, eta horrela ez egitera eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio.

## 9. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A PRESENTAR EN LA SOLICITUD

Además de la documentación indicada en las condiciones generales de la convocatoria, independientemente del modo en que se presenten las solicitudes, deberán acompañarse de:

- Memoria descriptiva del proyecto, con señalamiento de su calendario de ejecución, de su coste y de los recursos aplicados a su financiación.

  Cuando la solicitud se presente por una agrupación de personas físicas o jurídicas sin personalidad jurídica propia, la memoria contendrá, además, la relación de integrantes de la agrupación con indicación de los compromisos adquiridos por cada uno de ellos, así como la designación de un representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación.

- Fotocopia del DNI o CIF de la persona o personas solicitantes.

Si la documentación aportada fuera incompleta, se requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de 10 días hábiles, complete la documentación o subsane las deficiencias, con advertencia de que, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida de su petición.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

## 10. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Honako irizpide hauek kontuan hartuta ebaluatuko dira aurkeztutako eskaerak:

- Proiektuak merkataritza guneetan jarduera ekonomikoa biziberritzeko edo suspertzeko izango duen eragina. Merktaritza-inpaktua jarduketa gunean. Gehienez, 20 puntu.
- Proiektuak sektorearen irudi kolektiboan, gune batean edo kolektibo batean izango duen eragina. Hiriko merkataritzaren irudian inpaktu positiboa izatea. Gehienez, 20 puntu.
- Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna. Proiektuaren diseinua, deskribapena, garapena, kronograma, helburuak, berrikuntza-maila. Gehienez, 15 puntu.
- Proiektuan parte hartzen duen establezimendu-kopurua. Gehienez, 15 puntu.
- Hiri erosteko toki gisa sustatzen laguntzen duten ekintzak egitea. Beste sektore batzuekin, esaterako ostalaritzarekin, sinergiak sortzea. Gehienez, 15 puntu.
- Irungo Udaletik ekin zaien jarduketekin duten osagarritze- eta egokitze-maila. Gehienez, 10 puntu.

## 10. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Las solicitudes presentadas se evaluarán conforme a los siguientes criterios:

- Repercusión del proyecto en la revitalización o reactivación de la actividad económica en la zona o zonas comerciales. Impacto comercial en la zona de actuación. Hasta 20 puntos
- Repercusión del proyecto en la imagen colectiva del sector, en una zona o en un colectivo. Impacto positivo en la imagen comercial de la ciudad. Hasta 20 puntos
- La calidad técnica y viabilidad del proyecto presentado. Diseño, descripción, desarrollo, cronograma, objetivos, grado de innovación del proyecto. Hasta 15 puntos
- Número de establecimientos participantes en el proyecto. Hasta 15 puntos.
- Ejecución de acciones que contribuyan a la promoción de la ciudad como destino de compras. Creación de sinergias con otros sectores, como la hostelería. Hasta 15 puntos.
- Nivel de complementariedad y adecuación con las actuaciones emprendidas desde el Ayuntamiento de Irun. Hasta 10 puntos

- Proiektuen kofinantzaketa-maila,%50 edo gehiago, 5 puntu, %36 eta %49 artean, 4 puntu, % 16 eta% 35 artean, 3 puntu, %11 eta %15 artean, 2 puntu, eta %10 arte, puntu 1.

Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko.

- Grado de cofinanciación de los proyectos, 50% o más, 5 puntos, entre 36% y 49%, 4 puntos, entre 16% y 35% 3 puntos, entre 11% y 15% 2 puntos y hasta un 10% 1 punto.

Los proyectos deberán obtener un mínimo de 50 puntos para ser objeto de la subvención.

## 11. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa eskaera bakoitzak lortzen dituen puntuen arabera kalkulatuko da, 10.000,00 euroko muga jarrita proiektu bakoitzeko, edo diruz lagundu daitekeen gastu-aurrekontuaren % 80a, 1 lerroaren eta 3. lerroaren kasuan, eta 40.000,00 euro Elkarte bakoitzeko edo diruz lagundu daitekeen gastu-aurrekontuaren % 80a, 2 lerroaren kasuan.

Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, emakidaren unean, hasieran emandako dirulaguntzaren % 80ko zenbateko maximoa ordaindu dadin agindu ahal izango da, kontura ordaintzeko kontzeptuan. Ez da beharrezkoa izango onuradunak edo onuradunek bermeak eskaintzea aurrerakinak eta konturako ordainketak egiteko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kitatu egingo da, justifikatzen den unean. Aurkeztutako egiaztagirien arabera, aldatu liteke dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

## 11. IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN

El importe inicial de la subvención se calculará en función de los puntos obtenidos por cada solicitud, con el límite de 10.000,00 euros por proyecto o el 80% del presupuesto de gasto subvencionable en el caso de la Línea 1 y Línea 3 y 40.000,00 euros por Asociación o el 80% del presupuesto de gasto subvencionable, en el caso de la Linea 2.

Por Resolución de Alcaldía, en el momento de la concesión, podrá ordenarse el pago de un importe máximo del 80% de la subvención inicialmente concedida en concepto de pago a cuenta. No será necesaria la prestación de garantías por parte del beneficiario o beneficiarios para la realización de anticipos y pagos a cuenta.

El importe de la subvención está sujeto a liquidación en el momento de la justificación. De acuerdo con los justificantes aportados, el importe definitivo de la subvención puede verse alterado.

## 12. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

1. 1. lerroari dagokionez, gastu diruz lagungarriak izango dira, oro har, diruz lagundutako eta aurkeztutako memoriaren araberako proiektua egokiro burutzeko ezinbestekoak direnak, jarraian adierazten direnak izan ezik:

- Egiturazko gastu arruntak (langile gastuak, gizarte aseguruak, ur, argi, elektrizitate, telefono eta abarren kontsumoa).
- Sariak edo sustapenerako opariak.
- Mota orotako zergak, tasak eta prezio publikoak, BEZa izan ezik onuraduna BEZa ordaintzetik salbuetsita dagoenean eta, hortaz, ezin berreskuratu dezakeenean.

2. 2. lerroari dagokionez, gastu diruz lagungarriak izango dira, oro har, elkarte onuraduna agente eragile gisa parte hartu eta diruz lagundutako eta aurkeztutako memoriaren araberako proiektua edo proiektuak egokiro burutzeko ezinbestekoak direnak.

Emandako dirulaguntzaren gehienez % 20 justifikatu ahal izango da egiturazko gastu arruntekin, esate baterako hauekin:

- Langile gastuak, gizarte aseguruak eta antzeko beste kargak eta langileen prestakuntza barne. Espresuki geratzen dira kanpora dietak eta joan-etorrietarako gastuak, baita langileekiko

## 12. GASTOS SUBVENCIONABLES

1. Respecto de la línea 1, se considerarán gastos subvencionables, en general, los necesarios para la correcta ejecución del proyecto subvencionado, de acuerdo con la memoria presentada, con excepción de los siguientes:

- Gastos corrientes de estructura (gastos de personal, seguros sociales, consumo de agua, luz, electricidad, teléfono, etc.).
- Premios o regalos promocionales.
- Impuestos de cualquier naturaleza, tasas y precios públicos, excepto el IVA cuando el beneficiario esté exento de tributación y no sea, por tanto, recuperable.

2. Respecto de la línea 2, se considerarán gastos subvencionables, en general, los necesarios para la correcta ejecución del proyecto o proyectos en los que la entidad beneficiaria participe como agente tractor, de acuerdo con la memoria presentada.

Podrá justificarse un máximo del 20% de la subvención concedida con gastos corrientes de estructura tales como:

- Gastos de personal, incluidos los seguros sociales y otras cargas análogas y la formación del personal. Quedan expresamente excluidas las dietas y gastos de desplazamiento y las indemnizaciones

lan harremanen desagerraraztetik eratorritako kalte-ordainak ere, arrazoiak edozein izanik ere.

- Ur, argi, elektrizitate, telefono eta abarren kontsumoa
- Elkartearen egoitzaren alokairua, komunitateko eta antzeko beste gastuak izan ezik.
- Merkataritza-hirigintza azterlanak eta ekintzak

Ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko:

- Sariak edo sustapenerako opariak
- Mota orotako zergak, tasak eta prezio publikoak, BEZa izan ezik onuraduna BEZa ordaintzetik salbuetsita dagoenean eta, hortaz, ezin berreskuratu dezakeenean.

derivadas de la extinción de la relación laboral con el personal, con independencia de su motivación.

- Consumos de agua, luz, electricidad, teléfono,...
- Alquiler de la sede de la asociación, con excepción de los gastos de comunidad y otros gastos análogos
- Estudios y acciones de urbanismo comercial

No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

- Premios o regalos promocionales
- Impuestos de cualquier naturaleza, tasas y precios públicos, excepto el IVA cuando el beneficiario esté exento de tributación y no sea, por tanto, recuperable

**13. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunak proiektu bera finantzatzeko xedean lor ditzakeen beste edozein sarrerekin, eta bete beharreko baldintza bakarra izango da oinarri arau-emaile hauen babesean emandako zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin elkartuta, diruz lagundutako jardueraren kostua ez gainditzea.

**13. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES**

La presente subvención resulta compatible con cualesquier otros ingresos que el beneficiario pueda obtener con el fin de financiar el mismo proyecto, con la sola limitación de que el importe concedido al amparo de las presentes bases reguladoras en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**14. BALIABIDEAK BIRBANATZEA**

Proiektuen ezaugarrien aldaketak ez du eskaeraren beste formulazio bat eragingo, eta ez du aldaketarik eragingo emandako dirulaguntzaren zenbatekoan.

Diruz lagundutako proiektuak justifikatzearen ondorioz aurrezpenik gertatzen bada eranskin honetan jasotako finantzatze-irizpideak aplikatu direlako, birbanaketa bat egin ahal izango da, lerro bakoitzerako emandako baliabideak agortu arte, betiere eranskin honetako DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA atalean ezarritako muga maximoa gainditu gabe eta emandako zenbatekoak azkenean diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu gabe, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Birbanaketa hori alkatetzaren ebazpenaren bidez egingo da, aurretik espedientea izapidetzen duenak txostena eginda, oinarriak edo deialdia berriz argitaratu beharrik gabe.

**14. REASIGNACIÓN DE RECURSOS**

La alteración de las características de los proyectos no dará lugar a la reformulación de la solicitud, ni del importe concedido en su caso.

Cuando como resultado de la justificación de los proyectos subvencionados se produzcan ahorros por aplicación de los criterios de financiación contenidos en el presente anexo, se podrá proceder a su redistribución hasta agotar los recursos atribuidos a cada línea, sin que en ningún caso se pueda superar el límite máximo establecida en el apartado IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN del presente anexo y siempre que el importe finalmente concedido no supere, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de la actividad subvencionada. Tal redistribución se realizará mediante resolución de Alcaldía y previo informe del tramitador del expediente, sin necesidad de nueva publicación de las bases o la convocatoria.

**15. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOA AURKEZTEKO EPEA**

Ebazpenaren berri eman eta gehienez ere sei hilabeteko epean, betiere dirulaguntza eskatzen den ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko urtarrilak 31 baino lehen, onuradunek diruz lagundutako proiektua gauzatu dutela justifikatuko dute jarraian adierazten direnak aurkeztuta:

**15. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE JUSTIFICACIÓN DEL GASTO**

En el plazo máximo de seis meses desde la notificación de la resolución, y en cualquier caso antes del 31 de enero del ejercicio siguiente a aquél para el que se solicita la subvención, los beneficiarios deberán justificar la realización del proyecto subvencionado.

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

## 16. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAREN DOKUMETUAK ETA ARAUAK

Deialdiaren Baldintza Orokorretan adierazitako dokumentazioa, eskaera aurkezten den modua dela ere.

Pertsona fisiko edo juridikoen izaerarik gabeko elkarte batek egindako eskaera bat justifikatzeko prozeduran dirulaguntza eskatzen duten agente eragileren batek onuradun baldintza lortzeko baldintzaren bat ez duela betetzen detektatzen bada, ateratzen den dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da hark bere gain hartuak dituen konpromisoen zenbatekoan. Hartutako konpromisoen balioa zehaztu ezin denean, murriztu beharreko zenbatekoa agente eragileen kopuruarekiko proportzionala izango da. Horrez gain, detektatutako ez-betetzeagatik bidezko diren egintzak abiarazi eta/edo zigorrak jar daitezke.

Justifikatzeko unean, proiektu bakoitzerako emandako finantzaketa-ehunekoa aplikatuko zaio diruz lagundu daitekeen gastu justifikatuari.

Ehuneko hori dirulaguntza ematen den unean kalkulatuko da, proiektu bakoitzaren aurrekontuarekiko emandako zenbatekoa kontuan hartuta.

## 16. DOCUMENTACIÓN Y REGLAS DE JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

La documentación indicada en las Condiciones Generales de la convocatoria, independiente del modo en que se presenten las solicitudes.

Cuando en el procedimiento de justificación de una solicitud formulada por una agrupación sin personalidad jurídica de personas físicas o jurídicas se detecte el incumplimiento de alguno de los requisitos para obtener la condición de beneficiario por parte de algún o algunos de los agentes tractores que solicitan la subvención, se procederá a minorar el importe de la subvención resultante en el importe equivalente de los compromisos asumidos por éste. Cuando no sea posible determinar el valor de los compromisos adquiridos el importe a minorar será proporcional al número de agentes tractores. Todo ello sin perjucio de las acciones y/o sanciones que pudieran derivarse del incumplimiento detectado.

En el momento de la justificación, se aplicará al gasto subvencionable justificado, el porcentaje de financiación concedido para cada proyecto.

Dicho porcentaje se calculará en el momento de la concesión, teniendo en cuenta el importe concedido respecto del presupuesto de cada proyecto

Dirulaguntzaren xede den proiekturen bat gauzatzen ez bada, proiektu horretarako emandako zenbatekoa ondoriorik gabe utziko da. Kopuru hori ezingo da baliabideen birbanaketaren xede izan eta, hala badagokio, egindako konturako ordainketa itzuli beharko da.

Proiektu bat gauzatutzat jotzeko, eskabidean aurkeztutako aurrekontuaren % 60a justifikatu beharko da gutxienez. Ehunekoa txikiagoa bada, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

Si alguno de los proyectos objeto de subvención no se llevara a cabo, se dejará sin efecto la cuantía concedida para ese proyecto, sin que dicho importe pueda ser objeto de reasignación y debiendo reintegrar en su caso, el pago a cuenta realizado.

Para que un proyecto se considere realizado, deberá justificarse al menos el 60% del presupuesto presentado en la solicitud. En el caso de que el porcentaje sea menor, se procederá conforme a lo establecido en el apartado anterior.